Zumaiako Udala

2021IAKU0007-A21/5974

# 159. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2021eko uztailaren 29an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal, jna.

Bertaratutako zinegotziak: Alex Oliden Antia, jna.
Maider Alberdi Yeregui, and.
Marina Bidasoro Arocena, and.
M. Aranzazu Gajate Telleria, and.
Oier Korta Esnal, jna.
Gotzon Embil Unanue, jna.
Ainhoa Illarramendi Azkue, and.
Arritokieta Marañón Basarte, and

Ez bertaratuak: M. Arritokieta Iribar Egaña, and.
Asier Arakistain Alberdi, jna.
Jose María Azkue Castillo, jna.
Maddi Aldalur Osa, and.
M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta, and.
Cristina Vicente Iciar, and.
Iker Mardaras Arrieta, jna.

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre

**1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (158. zbkia – 2021.06.24)**

158. zbkia duen akta onartutzat ematen da

**2.- <u>OGASUNA.-</u>**
**2.1.- IRIZPENAK:**
**2.1.1.- UDALAREN 2020ko KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

**2021EKO EKAINAREN 25EKO, KONTUEN BATZORDE BEREZIKO IRIZPENA ETA TXOSTENA, 2020KO KONTU OROKORRARI DAGOKION ONARPENA.**

**AURREKARIAK**

**1**.- 2021eko martxoaren 31ean 2020ko aurrekontuen likidazioak onartzen dira, Udalari eta Erakunde Autonomoei dagozkienak, Kirol Patronatua.

**2**.- 2021eko ekainaren 25ean, 2020ko Kontu Orokorra aurkezten da Kontuen Batzorde Berezian ekitaldian zehar burutu diren aurrekontu-eragiketak guztiak, aurrekontuz kanpokoak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak jasotzen ditu eta kopuru eta kontzeptu garrantzitsuenak aztertzen dira.

**IRIZPENA ETA TXOSTENA**

Ondorioz, batzorde honek aldeko irizpena jasotzen du honako botoekin:

Aldeko botoak: 3 (2 BILDU, 1EAJ)
Abstentzioak: 0.
Aurkako botoak: 0.

Erabaki du, PROPOSAMEN hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

a- Jendaurrera azalduko da 15 egunetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3 artikuluaren arabera.

b- Jendaurreko epea amaitutakoan eta erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez, udalbatzaren onespenerako jarriko da.

c- Kontu Orokorraren berri emango zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, behar bezala onetsita, haren arautegian ezarritakoaren arabera.

Kontu orokorra onestea, eta udalbatzaren onespenerako ezartzea.

Zumaian, 2021eko uztailaren 23an

Dokumentazioa aurkeztu ondoren bozkatu egiten da

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: UDALAREN 2020ko KONTU OROKORRA ONARTZEN DA.-

**2.1.2.- UDALAREN 13., 14., 15., eta 17. KREDITU ALDAKETAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

**13. KREDITU ALDAKETA**

**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA**

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 0500.481.231.81.01 2021 | NAZIOARTEKO ELKARTASUN | 105.058,32 | 52.622,06 | 52.436,26 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | **105.058,32** | **52.622,06** | **52.436,26** |

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 0500.481.231.81.02 2021 | PARTAIDETZA KUOTA-EUSKAL FONDOA | 0,00 | 2.622,06 | 2.622,06 |
| 1 0500.481.231.81.03 2021 | PROIEKTUA EUSKAL FONDOA | 0,00 | 50.000,00 | 50.000,00 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | **0,00** | **52.622,06** | **52.622,06** |

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaian,
Alkatea

Gaia azaldu ondoren 13. Kreditu aldaketa bozkatzen da

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**
**Abstentzioak: 0**
**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: Udalaren 13.. kreditu aldaketa onartzen da,

Orain pasako gara, 14. Kreditu aldaketara,

**KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko kredituk aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0100.622.337.10.01 2021 | HOBETZE OBRA JUBILATUEN ETXEA (ULO) | 1.800,00 | 6.229,50 | 8.029,50 |
| 1 0100.692.153.30.01 2021 | TXIMISTORRATZ BERRIA ARTADIN | 0,00 | 8.500,00 | 8.500,00 |
| 1 0100.211.337.10.01 2021 | JUBILATUEN ETXEKO KONPONKETAK | 1.700,00 | 2.000,00 | 3.700,00 |
| 1 0100.211.172.01.01 2021 | KONPONKETAK ALGORRI | 6.000,00 | 1.500,00 | 7.500,00 |
| 1 0100.211.920.00.01 2021 | KONPONK. MANTENIM. UDALETXEA | 3.000,00 | 4.000,00 | 7.000,00 |
| 1 0100.211.929.01.01 2021 | MANTENIM. ETA KONTSER.BAKE EPAITEGIA | 300,00 | 300,00 | 600,00 |
| 1 0100.221.153.41.11 2021 | TRESNAK ETA ERREMINTAK | 7.500,00 | 1.500,00 | 9.000,00 |
| 1 1000.227.932.00.09 2021 | DIRU BILKETA ZERBITZUA | 10.000,00 | 20.000,00 | 30.000,00 |
| 1 0500.227.231.10.99 2021 | ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA | 250.000,00 | 150.000,00 | 400.000,00 |
| 1 0100.601.153.21.03 2021 | SAN JOSE AUZOAN IGOGAILUA EGITEKO EGOKIT | 0,00 | 400.000,00 | 400.000,00 |
| 1 0100.601.134.00.01 2021 | SAN TELMO IGOGAILUA | 0,00 | 350.000,00 | 350.000,00 |
| 1 0100.226.153.21.99 2021 | ITZURUN BIDEA LEHIAKETA | 0,00 | 20.000,00 | 20.000,00 |
| 1 0100.601.153.21.04 2021 | A3 EREMUA BIRMOLDAKETA | 0,00 | 75.000,00 | 75.000,00 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 1000.731.342.00.01 2021 | KIROL PATRONATUA EKARPENA INBERTSIOAK | 0,00 | 7.826,72 | 7.826,72 |
| 1 0100.601.165.00.01 2021 | INBERTSIOAK ARGITERI PUBLIKOAN | 8.000,00 | 1.100,00 | 9.100,00 |
| 1 0100.625.153.30.01 2021 | HIRI ALTZARIAK | 5.000,00 | 9.000,00 | 14.000,00 |
| 1 0100.622.920.10.02 2021 | TORREBERRI ERAIKINEKO SARRERA | 0,00 | 9.600,00 | 9.600,00 |
| 1 0100.601.161.00.02 2021 | ARRITOKIETAKO PONPATEGIA | 0,00 | 56.147,04 | 56.147,04 |
| 1 0100.692.134.00.01 2021 | ESTAZIOAN BIZIKLETEROA | 0,00 | 30.000,00 | 30.000,00 |
| 1 0200.781.326.00.01 2021 | ZUMAIENA INBERTSIOETARAKO DIRU-LAGUNTZA | 0,00 | 42.000,00 | 42.000,00 |
| | | | | |
| **GUZTIRA** | | 293.300,00 | 1.194.703,26 | 1.488.003,26 |

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| a | 2 0000.870.920.00.01 2020 | DIRUZAINTZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK | 1.194.703,26 |
| | | | |
| **FINANTZAKETA GUZTIRA** | | | **1.194.703,26** |

**KODEEN AZALPENA**

a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
c) Sarrera berri edo handiagoak.
d) Kredituen baliogabetze baja.
e) Kreditu eragiketak.

Zumaia,
Alkateordea
(Delegazioa 681/2021 Alkate Dekretuz).

Ondoren, 14. Kreditu aldaketa bozkatzera pasatzen da,

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: Udalaren 14. kreditu aldaketa onartzen da,

15. kreditu aldaketa,

**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA**

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 0100.622.230.00.01 2021 | HOBETZE OBRAK BRANKA (ULO) | 22.000,00 | 12.000,00 | 10.000,00 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | **22.000,00** | **12.000,00** | **10.000,00** |

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 0100.211.132.01.01 2021 | FIelATOREN MANTENIMENDUA | 600,00 | 2.000,00 | 2.600,00 |
| 1 0100.623.153.41.01 2021 | MAKINERIA ETA TRESNAK | 3.000,00 | 2.000,00 | 5.000,00 |
| 1 0100.625.231.50.01 2021 | ALTZARIAK EMAKUMEON* ETXEA | 0,00 | 8.000,00 | 8.000,00 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | **3.600,00** | **12.000,00** | **15.600,00** |

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaia,
Alkateordea
(Delegazioa 681/2021 Alkate Dekretuz)

Azalpena egin ondoren15. Kreditua bozkatzen da

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**
**Abstentzioak: 0**
**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: Udalaren 15. kreditu aldaketa onartzen da,

Zumaiako Udala

Eta 17. Kreditu

**KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko kredituri aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0600.601.166.00.01 2021 | ANDIKA ETA JADARRE AUZORAKO ARAZKETA SIS | 0,00 | 90.620,00 | 90.620,00 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | 0,00 | 90.620,00 | 90.620,00 |

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| a | 2 0000.870.920.00.01 2020 | DIRUZAINTZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK | 90.620,00 |
| | | | |
| | | **FINANTZAKETA GUZTIRA** | **90.620,00** |

**KODEEN AZALPENA**

a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
c) Sarrera berri edo handiagoak.
d) Kredituen baliogabetze baja.
e) Kreditu eragiketak.

Zumaia,

Alkateordea
(Delegazioa 681/2021 Alkate Dekretuz)

17. kreditu aldaketa, gaia landu eta gero bozkatzera pasatzen da,

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: Udalaren 17. kreditu aldaketa onartzen da,

**3.- LURRALDE ANTOLAMENDUA (Hirigintza, Ingurumena, Zerbitzuak eta Auzoak).-**
**3.1.- IRIZPENAK:**
**3.1.1.- ZUMAIAKO BONIFACIO ETXEGARAI KALEA 1eko FATXADA BIRGAITZEKO OBRARI, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAN %95EKO HOBARIA APLIKATZEA ONARTZEA BIDEZKO BADA.-**

**LURRALDE ANTOLAMENDUAREN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2021EKO UZTAILAREN 5EKOA, ZUMAIAKO ONDARE HISTORIKOKO, ARKITEKTONIKOKO ETA INGURUMEN-ONDAREKO FATXADAREN BIRGAITZE INTEGRALEKO ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN GAINEKO %95EKO HOBARIA APLIKATZEKO DENA, ZUMAIAKO BONIFACIO ETXEGARAI KALEA 1EKO FATXADARI DAGOKIONEZ.**

AURREKARIAK

1.- 2021eko apirilaren 9an, obra-lizentzia eskatu zuen BONIFACIO ETXEGARAI KALEA 1EKO JABEKIDEEN ELKARTEAK Zumaiako Bonifacio Etxegarai kalea 1ean fatxada konpontzeko.

2.-Jabekideek aurkeztutako idazkiaren bidez, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren gaineko %95eko hobaria aplikatzeko eskatu zen, Zumaiako Bonifacio Etxegarai kalea 1eko fatxada konponduko delako.

3.- Udal zerbitzu teknikoen txosten teknikoa hobaria aplikatzearen aldekoa da, 159.461,79 euroko egikaritze materialaren aurrekontuan oinarrituta.

4.- Ordenantza fiskalen berri eman da, dagokion IRIZPENA emateko.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2021eko uztailaren 5eko Lurralde Antolamenduaren batzordean bozketa egin da, honako emaitzekin:

**Alde:** Alex Oliden Antia (Bildu)
Marina Bidasoro (Bildu)
Oier Korta Esnal (EAJ)

**Aurka:** 0
**Abstentzioa:** 0

<u>ALDEKO</u> irizpena eman da eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan arautukoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Zumaiako Bonifacio Etxegarai kala 1eko fatxada birgaitzeko obrari, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria aplikatzea onartzea, exekuzio materialaren aurrekontua (159.461,790 €) kontuan hartuta.

Zuzenean gaia bozkatzen da

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: 1.- Zumaiako Bonifacio Etxegarai kala 1eko fatxada birgaitzeko obrari, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria aplikatzea onartzen da.-

**3.1.2.- ZUMAIAKO SAN TELMO KALEA 27-29ko FATXADA BIRGAITZEKO OBRARI, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAN %95EKO HOBARIA APLIKATZEA ONARTZEA BIDEZKO BADA.-**

**LURRALDE ANTOLAMENDUAREN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2021EKO UZTAILAREN 5EKOA, ZUMAIAKO ONDARE HISTORIKOKO, ARKITEKTONIKOKO ETA INGURUMEN-ONDAREKO FATXADAREN BIRGAITZE INTEGRALEKO ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN GAINEKO %95EKO HOBARIA APLIKATZEKO DENA, ZUMAIAKO SAN TELMO KALEA 27-29 FATXADARI DAGOKIONEZ.**

AURREKARIAK

1.- 2020ko irailaren 1ean, obra-lizentzia eskatu zuen SAN TELMO KALEA 27-29 JABEKIDEEN ELKARTEAK Zumaiako San Telmo kalea 27-29an fatxada konpontzeko.

2.-Zumaiako udalak horrela eskatuta, 2021eko maiatzaren 27an, lanak egikaritzeko dokumentazio osagarria aurkeztu zen.

3.- Jabekideek aurkeztutako idazkiaren bidez, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren gaineko %95eko hobaria aplikatzeko eskatu zen, Zumaiako San Telmo kalea 27-29ko fatxada konponduko delako.

4.- Udal zerbitzu teknikoen txosten teknikoa hobaria aplikatzearen aldekoa da, 211.446,70 euroko egikaritze materialaren aurrekontuan oinarrituta.

5.- Ordenantza fiskalen berri eman da, dagokion IRIZPENA emateko.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2021eko uztailaren 5eko Lurralde Antolamenduaren batzordean bozketa egin da, honako emaitzekin:

**Alde:** Alex Oliden Antia (Bildu)
Marina Bidasoro (Bildu)
Oier Korta Esnal (EAJ)

**Aurka:** 0
**Abstentzioa:** 0

<u>ALDEKO</u> irizpena eman da eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan arautukoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Zumaiako San Telmo kalea 27-29ko fatxada birgaitzeko obrari, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria aplikatzea onartzea, exekuzio materialaren aurrekontua (211.446,70 €) kontuan hartuta.

Hobariari dagokion bigarren gaia ere zuzenean bozkatzen da

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: 1.- Zumaiako San Telmo kalea 27-29ko fatxada birgaitzeko obrari, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria aplikatzea onartzen da.

**3.1.3.- ZUMAIAKO OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.**

**2021EKO UZTAILAREN 19KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO OINEZKOEN ETA IBILGAIUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO.**

**AURREKARIAK**

1.- Indarrean dagoen oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazio ordenantza 2000.urtean onartu zen, eta ordudanik hainbat aldaketa egon dira zirkulazio legediari dagokionez eta Zumaiako herriaren egituran.

2.- Hori kontuan hartuta, udal-gobernuak oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazio ordenantza egungo beharrei eta egoerara egokitzeko lan egin du. Ildo horretan, 2021eko ekainaren 23an, herritarrek ekarpenak egiteko epea zabaldu zuen.

3. Araudi hori indarrean dauden legeen arabera egokitu da eta Zumaiako oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa hobetzea du helburutzat. Horrela, herritarren segurtasuna bermatu eta ibilgailuen trafikoa arindu nahi da.

4.- Honakoak dira araudi berriak aurreikusten dituen zenbait berritasun: 30 km/h-ko abiadura-muga orokorra ezartzea, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak arautzea, akanpatze librea debekatzea edo aparkatzea debekatua dauden gune erreserbatuak arautzea.

5.- 2021-07-05eko Lurralde Antolamenduko Batzordean ZUMAIAKO OINEZKOEN ETA IBILGAIUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO irizpena idazteko irizpideen berri eman da.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2021eko uztailaren 19ko Lurralde Antolamenduko Batzorde informatzaileak, honako botoekin:
**Alde**: Iñaki Ostolaza Esnal (Bildu)
Alex Oliden Antia (Bildu)
Marina Bidasoro )Bildu)
**Aurka**: 0
**Abstentzioa:** Oier Korta Esnal (EAJ)
Aitziber Odriozola (EAJ)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako **PROPOSAMENA** egin da:

**LEHENA.-** ZUMAIAKO OINEZKOEN ETA IBILGAIUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZAREN hasierako onespena ematea.

**BIGARRENGOA:** Ordenantzaren hasierako onespenaren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

Azalpena ondoren ordenantza bozkatu egiten da

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: **LEHENA.-** ZUMAIAKO OINEZKOEN ETA IBILGAIUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZAREN hasierako onespena ematen da.

**BIGARRENGOA:** Ordenantzaren hasierako onespenaren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

**3.1.4.- ZUMAIAKO UDALEKO ETXEBIZITZA TASATUEN ESKATZAILEEN UDAL ERREGISTRORENARAUTEGIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.**

**2021EKO UZTAILAREN 19KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO UDALEKO ETXEBIZITZA TASATUEN ESKATZAILEEN UDAL ERREGISTROREN ARAUTEGIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO.**

**AURREKARIAK**

**1**.- Indarrean dagoen ETXEBIZITZA TASATUEN TOKIKO ORDENANTZAREN 17. artikuluan, eta udal gobernua lantzen ari den ordenantza horren aldaketaren 21. artikuluan etxebizitza babestuen udal erregistroa mantenduko dela esaten da.
2.- Aipatutako ordenantza horrek ezartzen duena betetzeko, erregistro hori arautuko duen erregelamendua onartu behar da.
3.- Erregelamendu horrek honakoak arautzen ditu: erregistroan izena emateko baldintzak, erregistroan gordeko diren datuak, horiek eguneratzeko betebeharra, besteak beste.

4.- 2021-05-31ko Lurralde Antolamenduko Batzordean, ZUMAIAKO UDALEKO ETXEBIZITZA TASATUEN ESKATZAILEEN UDAL ERREGISTROAREN ERREGELAMENDUARI hasierako onarpenaren irizpena idazteko irizpideen berri eman da.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2021eko uztailaren 19ko Lurralde Antolamenduko Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

**Alde:** Iñaki Ostolaza Esnal (Bildu)
Alex Oliden Antia (Bildu)
Marina Bidasoro )Bildu)
Oier Korta Esnal (EAJ)
Aitziber odriozola (EAJ)
**Aurka**:0
**Abstentzioa**: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, arautukoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako **PROPOSAMENA** egin da:

**LEHENENGOA:** UDALEKO ETXEBIZITZA TASATUEN ESKATZAILEEN UDAL ERREGISTROAREN ARAUTEGIAREN hasierako onespena ematea.

**BIGARRENGOA**: Ordenantzaren hasierako onespenaren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

Ordenantza eztabaidatu eta landu ondoren bozkatu egiten da ondorengo emaitza izanik

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: **LEHENENGOA:** UDALEKO ETXEBIZITZA TASATUEN ESKATZAILEEN UDAL ERREGISTROAREN ARAUTEGIAREN hasierako onespena ematen da.

**BIGARRENGOA**: Ordenantzaren hasierako onespenaren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

**3.1.5.- ZUMAIAKO ETXEBIZITZA TASATUEN TOKIKO ORDENANTZAREN 3. ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.**

**2021EKO UZTAILAREN 19KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO ETXEBIZITZA TASATUEN TOKIKO ORDENANTZAREN 3. ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA EMATEKO.**

**AURREKARIAK**

1.- Indarrean dagoen ETXEBIZITZA TASATUEN TOKIKO ORDENANTZA 2010. urtean onartu zen lehen aldiz eta 2013. urtean bi aldaketa izan zituen. Ordudanik hainbat eraldaketa egon dira etxebizitzaren merkatuan eta herritarren egoera ekonomikoan.

2.- Hori kontuan hartuta, udal-gobernuak etxebizitza tasatuen tokiko ordenantza egungo egoerara eguneratzea egoki ikusi du.

3. Araudi berri hori indarrean dauden legeen eta parametroen arabera egokitu da eta estruktura koherenteagoa du.

4.- Honakoak dira araudi berriak aurreikusten dituen zenbait aldaketa: etxebizitza eskatzaileen diru-sarrerak Eusko Jaurlaritzak ezarritako kopuruetara egokitzen dira alokairuaren kasuan gutxieneko diru-sarrerak izan ezik, sustatzaileen definizioa osatzen da, etxebizitza tasatuak alokatzeko prozedura gehitzen da, besteak beste.

5.- 2021-05-31ko Lurralde Antolamenduko Batzordean ETXEBIZITZA TASATUEN TOKIKO ORDENANTZAREN 3. ALDAKETAREN hasierako onarpenaren irizpena idazteko irizpideen berri eman da.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2021eko uztailaren 19ko Lurralde Antolamenduko Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

**Alde:** Iñaki Ostolaza Esnal (Bildu)
Alex Oliden Antia (Bildu)
Marina Bidasoro )Bildu)
Oier Korta Esnal (EAJ)
Aitziber odriozola (EAJ)
**Aurka:** 0
**Abstentzioa**: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako **PROPOSAMENA** egin da:
**LEHENENGOA**: ETXEBIZITZA TASATUEN TOKIKO ORDENANTZAREN 3. ALDAKETARI hasierako onespena ematea.

**BIGARRENGOA**: Ordenantzaren hasierako onespenaren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

Aurreko gaiarekin lotuta dagoela eta zuzenean bozkatzen da,

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: **LEHENENGOA**: ETXEBIZITZA TASATUEN TOKIKO ORDENANTZAREN 3. ALDAKETARI hasierako onespena ematen da.

**BIGARRENGOA**: Ordenantzaren hasierako onespenaren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

**3.1.6.- ZUMAIAKO UDALAK UROLA PLAZAN DUEN AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNEAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.**

**2021EKO UZTAILAREN 19KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO UDALAK UROLA PLAZAN DUEN AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNEAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA**

**AURREKARIAK**

1.- Zumaiako Udalak udalerrian turismo arduratsua sustatu nahi du, eta horretarako, autokarabanentzako zerbitzugune bat erreserbatu du Urola Plazan.

2.- Aurrekoa kontuan hartuta, udal gobernu taldeak gune horretarako araudia sortzeko lan egin du. Ildo horretan, 2021eko ekainaren 23an herritarrek ekarpenak egiteko epea zabaldu zuen Zumaiako Udalak.

3. Ordenantzan gune horren hainbat aspektu arautzen dira: gehieneko egonaldia, partzelen barruko erabilera edo eskaintzen diren zerbitzuak, esate baterako.

4.- 2021-05-17ko eta 2021-07-05eko Lurralde Antolamenduko Batzordeetan ZUMAIAKO UDALAK UROLA PLAZAN DUEN AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNEAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO irizpena idazteko irizpideen berri eman da,

Ondorioz, 2021eko uztailaren 19ko Lurralde Antolamenduko Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

**Alde**: Iñaki Ostolaza Esnal (Bildu)
Alex Oliden Antia (Bildu)
Marina Bidasoro )Bildu)
Oier Korta Esnal (EAJ)
Aitziber odriozola (EAJ)
**Aurka**: 0
**Abstentzioa**: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, arautuntakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako **PROPOSAMENA** egin da:

**LEHENA.-** ZUMAIAKO UDALAK UROLA PLAZAN DUEN AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNEAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN hasierako onespena ematea.

**BIGARRENGOA**: Ordenantzaren hasierako onespenaren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

Gaiaren azalpena eman eta gero ordenantzaren hasierako onarpena emateko bozka egiten da

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: **LEHENA.-** ZUMAIAKO UDALAK UROLA PLAZAN DUEN AUTOKARABANENTZAKO ZERBITZUGUNEAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN hasierako onespena ematea.

**BIGARRENGOA**: Ordenantzaren hasierako onespenaren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

Eta hurrengo puntua da, gai zerrendan sartu gabeko Plan Estrategikoaren puntua da eta lehendabizi proposamen bezala aurkeztu beharko da eta bozka egiten dugu ea onartzen dugun ekartzea osoko bilkurara proposamen bezala,

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: Zumaiako udalaren eta Kirol Patronatuaren diru-laguntzen Plan Estrategikoaren 1. Aldaketa eztabaidatzea erabakitzen da

Beraz, gehiengoarekin eztabaidatu edo behintzat bozkatu ahal izango dugu,

Bozkatzen da eta emaitza honako hau da:

**Aldeko botoak: 9 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Abstentzioak: 0**

**Kontrako botoak: 0**

**ERABAKIA**: Zumaiako udalaren eta Kirol Patronatuaren diru-laguntzen Plan Estrategikoaren 1. Aldaketa onartzen da.

Besterik gabe, abuztuan ez dugu egingo osoko bilkurarik, ondo pasa oporrak eta irailean aurkituko gara hemen,

Eskerrik asko,

---------------------

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hogei minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria